



ARARTEKOAREN AGERRALDIA
EUSKO LEgebILTZARRAREN OSOKO BILKURAN:
2006ko URTEKO TXOSTENA

I. SARRERA

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egunon.

Lehenik eta behin nire samina adierazi nahi dut arestian Maria Asun Macho hil zaigulako, eta, aldi berean, goraiatu nahi dut Arartekoarekin zenbait analogia dituen Kontu Epaitegiko partaide eta buru gisa egin zuen lan bikaina.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2006. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren goi ordezkari gisa, ganbera honi Ararteko erakundeak 2006an burutu dituen jarduerak jakinarazteko betebeharra.

Joan den astean Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean agertu nintzen, txosten honetxen berri emateko. Agerraldi hartan azterketa kuantitatiboa egin nuen, laburki azaldu nituen erakunde honek burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoak ezagutarazi nituen, baita gomendio orokorrak ere, eta agerian jarri nuen administrazioaren organo jakin batzuek Arartekoari laguntzeko betebeharra ez betetzeari eusten diotela. Osoko Bilkuraren aurrean egiten ari naizen azalpen hau Batzordearen aurreko agerraldiaren osagarria da eta, jakina, ez ditut jorratuko dagoeneko azalduta dauden gaiak; aitzitik, ohikoa denez, gure eskumen-eremu subjektibo eta materialaren araberako politika publikoen diagnostia egingo dut, betiere gizakien eskubideak behar bezala babestearen ikuspegitik.

Zehaztu beharra dago Ararteko erakundeak euskal herritarren eskubideak gauzatzeari buruz egin dezakeen balorazioa bere eskumen-eremuaren mugek baldintzatzen dutela. Eskumen-eremu horretatik kanpo geratzen dira Estatuko administrazioa, Justizia administrazioa eta eremu publikokoak ez diren herritarren harremanak, batez ere herritarren kontsumitzaile alderdia.

Beste alde batetik, aurreko urteetan bezalaxe, azalpen honen ardatz nagusia politika publikoen arreta berezia merezi duten taldeak izan daitezen erabaki dugu. Arrazoi ezberdinengatik merezi dute arreta berezia: benetan arriskuan edo egoera ahulean daudelako edo egon daitezkeelako, gizarte diskriminaziozko edo bazterkeriazko elementuek bere horretan jarraitzen dutelako edo eskubideak benetan eta modu eraginkorrean gauzatzeko oztopoak edo gabeziak daudelako. Gure ustez, euskal herritarrek beren eskubideak berdintasunez eta behar bezalako duintasunez erabili ahal izan ditzaten, desagerrarazi egin behar dira ahulezia-egoera



sortzen duten zertzeladak, edo, batzuetan, modu osagarrian, ekintza positibozko neurriak sustatu behar dira.

Gure iritzia osatzeko, oinarrizkat hartu dugu legeak gure esku jarritako tresnak erabiliz iaz egin genuen lana: kexak aztertu eta ikertzea, hainbat zentro eta bulegotara ikustaldiak egitea, gizarte-erakunde batzuekin bilerak egitea, txosten monografikoak prestatzea, herri-administrazioetatik informazioa biltzea, e.a.

Zuen aurrean egiten ari naizen azalpen honek denborazko eta metodologiazko mugak dituen zergatik, ezin dira hemen aipatu gure ebazpen eta jarduerak eragindako eskubide guztiak. Hortaz, gure lana antolatzeke erabiltzen ditugun gaikako alorretan egindako analisisiei lotuko natzaie. Analisi horiek urteko txosten mardulean bilduta daude. Uste dut, edonola ere, azpimarratu behar dudala oso garrantzitsua dela politika publikoak etengabe hobetzea osasun, hezkuntza, etxebizitza eta gizarte zerbitzuen alorretan (batik bat mendekotasun-mailaren bat duten pertsonen dagokienez), izan ere, herritarrek hain zuzen oinarrizkotzat jotzen dituzten eskubide sozialei eragiten diete. Era berean, eskaera hau biziki azpimarratu nahi dut: herri-administrazio guztiek ahaleginik handiena egin dezatela administrazio egokia izateko eskubideari kalitateko edukiak emateko, horren gabeziak eta akatsak salatzen baitira euskal herritarren hainbat eta hainbat kexatan.

Arartekoa estatutu-erakundea da, pertsona guztien eskubideak babesteko sortua. Herri-agintariek beharrezko baldintzak sustatu behar dituzte, euskal gizartea osatzen duten herritar guztien askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen, eta eskubide horiek gauzatzea eragotzi edo zailtzen duten oztopoak kendu behar dituzte.

Begi-bistakoa da eskubide-askatasunak formalki ezagutzen badira ere, euskal herritar askok ez dituztela horiek modu eraginkorrean erabiltzen.

Ararteko erakundeak uste du Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak babesteko egoera baloratzeko funtsezko erreferentzia dela Konstituzioaren 10. artikulua. Agindu hori I. tituluaren ataria da. Bertan jaso eta arautzen da gizon-emakumeen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Artikulu horrek honela dio lehen atalean: gizabanakoaren duintasuna, horri datxezkion ezin urratuzko eskubideak, nortasuna aske garatzea, legea eta besteen eskubideak errespetatzea, horiek guztiak dira ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarria. Hortaz, oinarrizko eskubideen funtsezko zutabea da gizakiaren duintasuna, hau da, gizabanakoaren autodeterminazio eta askatasunarekiko errespetua, eta norberaren bizitza egiteko eta garatzeko eskubidea, norberaren ezaugarrien eta borondatearen arabera, elkarrenganako errespetu osoz. Eta zutabe horrek eusten die oinarrizko eskubide guztiei. Gainera, lehenbiziko artikulua horretan bildutako ordenamendu juridiko-konstituzionalaren balio nagusiek (askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoak) eskubideen sistema osoan izan behar dute eragina. Ararteko



erakundearen jarduera guztien helburua pertsonen duintasuna eta balio demokratikoak errotik zaintzea da.

Horrela bada, Arartekoak lan egin behar du gure gizarteko balio-sistema –gizakien portaera gidatzen duena– eta herri-administrazioen –bai erantzule politikoen baita bere funtzionarioen– jarduerak funtsezko eskubide eta printzipio horietan sendo oinarritu daitezen, giza eskubideei buruzko kulturaren pedagogia-lana eginez, ikuspegi etiko hutsetik abiatuta, eszenatoki politikoetatik at, eta herri-subiranotasunaren ordezkari diren erakundeek erabakitako legeak betez.

Ikuspegi horretatik, ararteko honek argi eta garbi adierazi nahi du bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea beharrezko baldintza dela gainontzeko eskubide guztiak gauzatzeko. Horregatik, salaketa irmoa egin nahi dut ETA talde terroristak eskubide horiek zapaltzearen kontra.

Zoritxarrez, 2006an ETAk berriro indarkeria erabili du eta Barajaseko atentatuan Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estacio gazteak hil ditu.

Gure elkartasuna adierazi behar diegu terrorismoaren biktima horiei, eta erabat gaitzetsi halako giza eskubide oinarritzkoenen aurkako ekintzak.

Gainera, hiritar asko bizia edo osotasun fisikoa galtzeko mehatxupearan bizi dira, eta beren askatasuna mugaturik dago. Herritar asko estortsio ekonomikoaren mende daude oraindik ere, eta beren askatasun eta ondasunen kontrako indarkeria jasaten dute.

Indarkeria gaitzesteko ikuspuntu etiko beretik, argi gaitzetsi behar dugu “kale borroka” deritzana, izan ere, giza eskubideak urratzea ekarri duten beste ondorio batzuen artean, Ambrosio Fernández arrasatearraren heriotza eragin zuen.

Beraz, modu eraginkorrean babestu behar ditugu eskubide-sisteman, eta bereziki lehen aipatu ditugun funtsezko eskubideetan oinarrituriko balioak, eskubide horietatik baitatuz gainontzeko guztiak. Hori lortzeko, foro honetan adierazi nahi dugu behar-beharrezkoa dela botere publiko guztiek hitz ematea egunero gure demokrazia hobetzen lan egingo dutela, eta eskubideak babesteari dagokionez, mailarik gorenera igoko dutela. Gure zeregin zabal eta askotarikoa betetzeak ematen digun pribilegiozko behatokitik begiratuta, gure iritziz, arartekoaren zeregina da, euskal Ombudsmanarena, euskal herri-administrazio guztiei dei egitea bost gairen gainean, izan ere, bost gaiok baitira demokrazia instituzional eta sozial aurreratuaren paradigma, mintzaldi honen ardatz izango diren eskubide sozialen garapen eta zabalerarekin eta eskubide zibil eta politikoen berme sistemarekin batera.



Lehenik, indartsuago eta eraginkorrago lan egin behar dugu emakumeen kontrako indarkeria matxista eragozteko, eta gure bizitzatik gaitz izugarri hori ezabarazteko.

Bigarrenik, oso garrantzitsua denez, erabat desagerrarazi behar dugu tortura edo tratu txar fisiko nahiz psikologikoak ematea askatasunik gabeko eremuetan, poliziaren bulegoetan, baita espetxeetan ere, txikia balitz ere jokabide hori. Ereku horietan eskumena duten agintariek oinarrizko printzipiotzat eta salbuespen gabekotzat hartu behar dute tortura eta tratu txarren aurrean tolerantziarik ez izatea eta atxilotuaren edo espetxeratuaren duintasuna eta osotasun fisiko eta morala zeharo errespetatzea.

Hirugarrenik, politika publikoek modu eraginkorragoan lan egin behar dute norberaren zertzeladaren batengatik inor ez diskriminatzeke. Horretarako, desagerrarazi egin behar dira aurreiritziak, gorrotoak eta fobiak eta demokraziaren kontrako balioak, esate baterako, sexismoa, arrazakeria, homofobia edo xenofobia.

Laugarrenik, politika publikoentzat lehentasunezko helburu bat da egunero-egunero bazterkeriarik gabeko gizarte bat lortzeko lan egitea, bere aniztasunean gizakiak gero eta hobeto hartuko dituen eta kohesio handiagoa izango duen gizarte, bai prebentziozko bai sendatzeko edo arintzeko ikuspegitik begiratuta, lehentasunezko arreta emanaz baztertuta edo pobrezian bizi diren edo bizi daitezkeenei, bada, gauzak hobeto egiten ez baditugu, pertsona horietako askok, ezinbestean, “bizitokirik gabe” edo espetxean bukatuko dute.

Azkenik, ohartu gara herritarrak gero eta kontzientziatuagoak daudela ingurumenarekin lotutako gaiekin, hala arazo handiekin (iraunkortasunari lotutakoekin) nola herritarren bizimoduarekin zerikusi zuzenagoa dutenekin, adibidez, kutsadura akustikoarekin. Herritarren kontzientzia horrek akuilu edo pizgarri izan beharko luke politika publikoak egunetik egunera zorrotzagoak izan daitezen ingurumen egokia izateko eskubidea babesten eta herritarren ingurumeneko bizitzaren kalitatea iraunarazten eta hobetzen.

II. 2006KO URTEKO TXOSTENAREN ANALISIA, TALDE BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA EMATEA ABIAPUNTU HARTUTA

Ararteko erakundeak, hasiera-hasieratik jarduera-lerro batzuk ezarri zituen zenbait biztanle-talde edo biztanle-sektoreri dagokienez, bada, bere ustez, taldeok politika publikoen behar berezia zuen, bai beren eskubideak gauzatzean erabateko berdintasuna bermatzeko, bai beren duintasuna behar bezala zaintzeko, bai egoera ahulean zeuden pertsonak babesteko. Talde hauek ziren, hain zuzen: emakumeak, adingabeak, atzerritarrak, adinekoak eta ezgaitasunen bat dutenak. 2006. urtean sei arlo berri sortu ditugu, lehentasunezko arreta behar duten beste talde batzuen alde egin behar dugun lan eraginkorra hobeto sistematizatzeko.



- terrorismoaren biktimak;
- gaitz kronikoa duten pertsonak, gaitz hori fisikoa nahiz mentala izan;
- joera homosexuala edo identitate transexuala duten pertsonak;
- askatasunik gabeko pertsonak: espetxeratuak eta atxilotuak;
- gizartean baztertuta edo pobrezian bizi direnak;
- ijito herria eta beste kultura gutxiengo batzuk.

1. Lehenbizi, beharrezkoa den emakumeen eta gizonen berdintasuna aipatuko dut.

Emakumeek oraindik ere baldintza bereziki txarrak eta desberdinak pairatzen jarraitzen dute bizitzako arlo askotan eta, aldi berean, zailtasun eta oztopo bereziak aurkitzen dituzte beren eskubideak gauzatzeko orduan. Horregatik, politika publikoak behar dira, eta Arartekoak politika horiek ebaluatu behar ditu.

Joan den urtean, **gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako** eskubidea aztertzerakoan, lehenengo eta behin, arau garrantzitsu bat aipatu behar zela adierazi genuen: Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an onetsi zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legea. Bai eremu publikoan bai pribatuan, lege horrek parekotasuna sustatu nahi du eta emakumezkoek jasaten dituzten bereizkeriak ezabatu.

Lege honek bereizkeriaren aurkako zuzenbidea deritzonaren kategoria eta nozio juridikoak argitzen ditu, eta erakunde publikoentzat eta euren funtzio desberdinei dagokienez (kasu askotan modu hertsian) benetako berdintasun eraginkorrari buruzko agindua zehazten du (Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotakoa), administrazioen jarduera ezaren aurrean oinarritzko printzipio bezala.

Lege horretan bildutako xedapenetako askoren benetako aplikazioa atzeratuta zegoen, zenbait kasutan geroago arau bidez garatu behar baitziren.

Ildo horretatik, azpimarratu beharra dago Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek, Hezkuntza eta Osasun Sailek izan ezik, organo bat ezarri dutela sail bakoitzean, lege horretan eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Berdintasunerako Planean jasotakoa gauzatzeko lanak koordinatu, bultzatu eta batera garatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren 2006ko irailaren 26ko erabakia oso garrantzitsua da; horren bidez, EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana onartu da, datozen urteetarako Euskadin berdintasun politikek izan beharko duten orientazio estrategikoaren oinarriak ezarri dituen. Era berean, nabarmendu behar dugu aztertzen ari garen 2006. urtea



amaitu baino lehentxeago, 261/2006 Dekretua onartu zela, abenduaren 26koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Sail Arteko Batzordea ezartzekoa.

Jakina denez, esparru pribatuan gertatzen dira emakumeen aurkako bereizkeria-egoera gehienak. Horregatik, oso garrantzitsua legearen azken xedapenetatik bederatzigarrena; horren arabera, zehaztu egin behar da zein diren emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan edo programa bat izan behar duten enpresa pribatuak, baita ere zeintzuk izan behar duten horien gutxienezko edukiak eta jarraipenerako eta ebaluaziorako mekanismoak.

Enpresetan berdintasun plan eta programen benetako ezarpen eraginkorra atzeratu egin da arauetan aurreikusitakoa kontuan hartuta, enpresaren eremuan esku hartzen duten gizarte-eragile guztien arteko adostasuna bilatu nahian baitabilta. Berdintasunaren arloan aplikatzen diren eskakizun berriek arrakasta izan dezaten ados jartzea erabakigarria den arren, funtsezkoa da neurri horiek albat arinen abian jartzea.

Aipagarria eta goraipagarria da, ildo horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako Defentsoria erakundearen sorrera, alor pribatuan diskriminazioa ekiditeko.

Bestalde, administrazio publikoen jardura guztietan berdintasuna erabat ezar dadin, oso garrantzitsua da generoaren araberako eraginaren ebaluazioa bezalako tresna berritzaile bat araupetzea, oraindik egiteko dago eta.

Azkenik, beharrezkoa da baita ere, legeak dioen bezala, organo bat sortzea, publizitatearen inguruan aholku eman eta hori azter dezan. Organo horren ardura izango da, halaber, hedabide publikoek emandako edukiei dagozkien kode etikoak egotea zaintzea. Behar hori agerian geratzen da emakumeen duintasuna iraintzen duten publizitate sexistako kasuei buruzko kexak jasotzen ditugunean.

* * * * *

Generoagatik gertatzen den bereizkeriarik larriena, ordea, indarkeria matxista eta sexistaren fenomeno kezagarria da, emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso onartezina baita.

Botere publikoek tratu txarrak jasandako emakumeen beharrei eman behar dieten erantzunak diziplina ezberdinak uztartu behar ditu, besteak beste, jardura judizialak, laguntza juridikoa, gizarte eta harrera zerbitzuen funtzionamendua edo etxebizitza bat izateko aukera lotuz.



Indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzunaren eraginkortasuna hainbat faktoreren araberakoa da, hala nola: fenomeno behar bezala ezagutzea; zerbitzuak etengabe ebaluatzea eta zerbitzuak diagnostiko berrietara egokitzea; erantzuna arin, azkar edo berehala ematea; aldeztu aurretik planifikatzea autonomia erkidegoko lurralde osorako zerbitzuak edo zerbitzu guztien arteko koordinazioa (herrietakoak barne). Ildo horretan, nabarmentzekoa da sortu berria dela euskal udalen sarea, Berdinsarea, Eudelek sustatua; Berdinsareak euskal udalerrri guztien arteko harremana sortu nahi du, berdintasunaren eta genero indarkeriari emandako erantzunaren alorrean.

Genero indarkeriaren arazoaren beharrei eta larritasunari egokitutako erakundearen erantzun planifikaturik ez zegoela aipatu genuen. Beraz, gabezia hori zuzentzeko balio duten neurri guztiak pozik hartu behar ditugu.

* * * * *

Idatziz jasota utzi behar da zenbait administrazio publikori bereizkeria egotzi dioten erreklamazioak egon direla. Behin eta berriro errepikatzen diren eta oraindik konpontzeke dauden auzi horiek kulturaren, kirolaren eta herriko jaien esparruari eragiten diete batez ere. Orobat, agerian jarri behar dugu botere publikoek funtsezko zeregina dutela egoera horiek aldatzeko. Horregatik, zera eskatzen dugu: botere horiek bere gain har dezatela benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko duten funtsezko erantzukizuna, eta bazter dezatela inhibizio edo geldokeriaren jarrera, izan ere, gehiegitan, jarrera horrek bereizkeriak betikotzea ahalbidetzen du, pribatuak direnez, estalita daudelako.

- Horrela, berriro adierazi behar dugu, ezinbestean, Irungo eta batez ere Hondarribiko alardeak ospatzean, oraindik anormaltasun egoera nabarmentzen dela emakumeen berdintasunerako eskubidea gauzaterakoan. Bi ospakizun horietan, eta euskal herrietako ospakizun orotan, ezinbestekoa da botere publiko eskudunak irmoki konprometitzea eta beharrezko ekintza burutzea emakumeen berdintasunerako eskubidea benetan eta modu eraginkorrean gauzatu dela bermatzeko.

2. Bigarrenik, adineko pertsonen mintzatuko naiz.

Gure erkidegoan, biztanle-sektore gero eta ugariagoa da adinekoena, eta adintsuak direnez, behar bereziak dituzte. Oso denbora laburrean, Euskal Herriko bost herritarretatik batek 65 urte baino gehiago izango ditu.

Pozik nago 2006. urtean aurrerapen handiak egin direlako, bai arauen eta antolaketaren arloan, bai adinekoentzako gizarte-baliabideak sortzeari dagokionez. Bide zuzenetik goaz, eta



hurrengo urteetan horri eutsi eta baliabide gehiago sortu ere egin beharko dugu.

2005ean erakunde honek Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zion *Pertsona nagusiei emandako arreta EAEn* izeneko txosten berezian adierazi genuen euskal biztanleen artean zahartze tasak gora egin zuela eta, hortaz, adinekoentzako zerbitzuen plangintza egiterakoan, errealitate demografiko hori kontuan hartu behar zela.

Txosten berezi hartan jasotako datuak eguneratzean, agerian jarri da Araba Lurralde Historikoan nabarmen gehitu direla egoitza-zentroak eta banakako plazak. Gehikuntzarik handiena plaza pribatuetan izan den arren, lurralde historiko honetan zentro publikoetako plaza gehiago dago. Eguneko zentroetako eta etxeko laguntza-zerbitzuko plazak ere gehitu egin dira.

Bizkaian, nabarmen areagotu da estaldura-tasa osoa, egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta etxez etxeko laguntza barne direla.

Gipuzkoa Lurralde Historikoan egoitzei dagokien estaldura-tasa oso gutxi hazi da. Hala ere, izugarri gehitu dira eguneko zentroetako plazak. Aitzitik, etxeko laguntzan erabiltzaile kopurua areagotu egin da, baina behera egin du horiei eskaintzen zaien ordu kopuruak.

2006ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean Bizkaian besteren laguntza behar duten adinekoentzako egoitzen zerbitzu publikoa arautzen duen dekretua.

Gure iritziz, onuragarria da familiei adinekoak zaintzeko laguntza ematea eta hizkuntza eskubideak aitortzea.

Aldiz, eztabaida handia eragin du honako hau dioen arauak: adinekoentzako gizarte zerbitzuak eskatzen dituenaren ahalmen ekonomikoa baloratu ahal izateko, ohiko etxebizitza ere barne hartu behar dela eta zorraren onarpena finantzaketa-berme gisa hartuko dela.

Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 22ko 152/2006 Foru Dekretu berriak ezabatu egiten du, gure ustez zuzenki, plaza bat eskuratu ahal izateko, baliabide ekonomikorik ezin izan zitekeela ezartzen zuen betekizuna, erakunde honen ustez, hori diskriminatzailea baitzen. Sarbidea unibertsala izango da; nolana ere, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoaren arabera zehaztuko da zerbitzua finantzatzen izango duen partaidetza ekonomikoa.

Ondo iruditzen zaigu Bizkaiko Foru Aldundiak “Zainduz” programa onartzea, familian besteren laguntza behar duen adinekoa zaintzen duten familiei laguntzeko. Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Gasteizko Udalak aspalditik dute horrelako programa bat.



Bilboko Udalak 2006an jarri du abian “Zaintzea” plana.

Bizkaiko eta Gasteizko Plan Gerontologikoa ere 2006. urtean onartu da.

Era berean, arau berriak ezarri dira gero eta ohikoagoa den baliabide baten gainean, hain zuzen, tutoretzapeko apartamentuen gainean.

195/2006 Dekretuaren bidez zera lortu nahi da: tutoretzapeko etxebizitzetarako buruzko araudia bere helburura egokitzea: hau da, bestelako baliabideak behar ez dituzten adinekoentzako gizarte-zerbitzu gisa erabiltzea.

Azkenik, gogorarazi behar da laguntza-zerbitzuak adinekoen ingurune naturaletik gertu egon behar dutela.

- Jendaurrean adierazi nahi dut herri-administrazioak oro har ahalegin handia egiten ari direla arlo honetan, batez ere hiru foru aldundiak, baina demografiari buruzko aurreikuspenak eta baliabide nahikorik ez dagoela kontuan izanda, goranzko bide horri eustera animatzen ditut.
 - Gainera, nabarmendu nahi dut gizarte-zerbitzuen arloan oro har, baina bereziki adinekoen arretari dagokion arloan, hiru arreta-eredu ezberdin daudela, bat lurralde historiko bakoitzeko. Bakoitzaren eskumen-eremuak kontu handiz errespetatuz, badirudi beharrezkoa dela irizpide komunak ezartzea, batik bat zerbitzuetarako sarbidean, desberdintasun egoerak saihesteko.
3. Adingabeen arazoei berariazko arreta emateari buruz, nabarmendu beharra dago behin eta berriro adingabeak eskubideak dituzten subjektuak direla, baina, gainera, berez dituzten ezaugarriengatik, oso biztanle-sektore ahula osatzen dutela, bermatu behar diren eskubide bereziak dituztela. Horregatik, Arartekoak berariazko eta lehentasunezko arreta behar duen taldeetat jotzen du talde hori.

Aldi berean, badira, beren eskubideei dagokienez, arrisku berezian dauden hainbat talde: babesik gabeko haurrak eta nerabeak, bakarrik dauden adingabe atzerritarrak; adingabe legehausleak; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak; buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeak, edo atxilotutako adingabeak.

Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei buruz, arazo desberdinak antzeman dira “**topaleku**” izeneko funtzionamenduan, bereziki Gipuzkoan. Hortaz, lehen-lehenik adingabeen interesa aintzat hartuko duten gutxienezko jardura-irizpide komunak Euskadiko topaleku guztietara zabaltzen lagundu beharko luke Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak.



* * * * *

2006an bere hartan jarraitzen zuten **bakarrik dauden adingabe atzerritarrei** dagozkien arazoetako askok: harrera-baliabideen saturazioa, eskolatzeko edo beren beharretara egokitutako hezkuntza-jarduera egiteko zailtasunak, agiriak lortzeko izapideen moteltasuna...

Etengabe adingabeak heltzea gizarte-eztabaida sortzen ari da, horiek hartzeko gure ahalmenaren gainean; gatazkaren irudia proiektatzen ari da, eta horrek, kasu askotan, baliabideak sortzeari uko egitea dakar. Gainera, behar besteko bermeak eskaintzen ez dituzten aberriratzeko prozesuak egiten dira. Egoera oso kezagarria da adingabe horien eskubideei eta eskubideok behar bezala betetzeari dagokionez.

Kasu hauetan ere adingabearen interes goren hartu behar da administrazioen jarduerak gidatuko dituen irizpidetzat. Adingabeak ez dira beren jatorrizko herrialdeetara aberriratu behar, baldin eta jatorrizko familia-gunera itzultzeak adingabearen interesik onena bermatzen duela ziurtatzen ez bada. Gure artean dauden bitartean, harrera-zentroek espazio, osasun eta hezkuntzaren aldetik egokiak direla bermatu behar dute.

* * * * *

Adingabe arau-hausleei dagokienez, haxe aipatu behar da: nahiz eta, oraindik ere, neurririk erabiliena komunitatearen mesederako prestazioak diren, nabarmen gehitu dira zenbait neurri (adibidez, internamendu edo barneratzeak, asteburuetako egonaldiak). Hori deigarria eta kezagarria da, eta adingabeen epaitegien jarduerak joera-aldaketa izan duela adierazten du.

Aipatu beharra dago, orobat, ez dela egia sistemak adingabeen delituzko ekintzen aurrean ezer egiten ez duenik, baizik eta izugarrizko atzerapenarekin egiten duela; horrek ondorio kaltegarriak dakarzkie adingabeei eurei, beren biktimei eta gizarteari oro har.

Oraindik ez da arauz garatu Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea, 2005eko otsailekoa, zerbitzuak arautzeari dagokionez, nahiz eta badauden protokoloak, barne agiriak edo jarduteko eskuliburuak.

Erakunde hau kezkatuta dago, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak berak honakoa adierazi baitu: *“jokabide arazoak dituzten gazte atzerritarrek eta tutoretzapekoek ez diete beren beharrei erantzun egokia aurkitzen sisteman eta egoera hori larriagotu egin da 2006an, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako harrera-zerbitzuak beteta baitaude”*.

* * * * *



Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak direla-eta, ikasle horien banaketa orekatua bermatzeko neurriak har daitezela eskatu dugu, bereziki, ikasle ezgaituen, etorkinen eta ijitoen kasuetan, horrela “eskola-ghettoak” eratzea ekidingo baita.

Berriz ere gehitu egin da eskolatutako ikasle etorkinen kopurua, azken urteotako joerari eutsiz.

Bestalde, gehitu egin da itunpeko ikastetxeetan eskolatutako ikasle atzerritarren proportzioa eta, gainera, “A eredu” nagusi den arren, B eta D ereduetako eskolatzea ere gehitu egin da. Aurreikuspenen arabera, ikasle atzerritarren fenomenoak gero eta eragin handiagoa izango du euskal hezkuntza-sisteman.

Ikasle ijitoei dagokienez, Hezkuntza Sailak uste du une honetan garrantzitsuena ez dela zein ikastetxetan eskolatu diren, baizik eta zergatik diren hain baxuak eskola-arrakastako beren adierazleak.

* * * * *

Gure arreta-sistemak ez du baliabiderik **burutik gaixo dauden haur edo nerabeei** erantzuna emateko, edo, bestela, argiro nahikoa ez den erantzuna ematen du adingabeek buruko gaixotasunen bat edo toxikomaniak dituztenean edo jokabide arazo larriak dauden kasuetan (bereziki, nerabeen artean). Horren ondorioz, egoerarik larrietan, gure autonomia erkidegotik kanpo kokatutako baliabideetara edo zerbitzu pribatuetara jo behar izan dute.

* * * * *

Bestalde, ikusi ahal izan da polizia-etxe batzuetan oraindik ez dagoela eremurik **atxilotutako adingabeak** hartzeko.

2006an **eskolako tratu txarreko edo jazarpeneko egoerak** azaldu dira. Arazo konplexua da eta, sistema judizialera bidera daitezkeen oso kasu larriak kenduta, hezkuntza-sistemak berak eman behar die erantzun egokia arazo horiei.

4. **Atzerritarren eskubideak** dira urratzeko arrisku handiena dutenak.

Gogorarazi behar dugu 2005. urtean bi jarduera oso garrantzitsu gauzatu zirela atzerritarren egoeraren eta haien eskubideen esparruan:

- atzerritarren egoera juridikoa normalizatzeko prozedura berezia eta



- 2005eko abenduan indarrean jarri zen legezko xedapena, etengabe herri batean bizitzeko baimenik ez duten atzerritarren erroldatzeak balioa galtzeari buruzkoa.

Dokumentazio prozesuan, udalen esku-hartzea garrantzitsua izan da, bai ohiko dokumentazio prozesuan – sustraitze arrazoiak direla-eta bizileku baimena lortzeko gizarte txostenak eginez–, eta baita ezohiko dokumentazio prozesuan ere –bertan bizi izana justifikatzeko erroldatze ziurtagiriak emanez–.

Errotze arrazoiengatik aldi baterako egoitza-baimena izapidetzeko prozeduran, udalek atzerritarra lan-kontratua behar izatetik salbustea gomendatu dezakete, baldin eta bizitzeko baliabide nahikoak dituela ziurtatzen badu; hori, ordea, gutxitan gertatzen da hala.

Garrantzitsua da txostenak ezarritako arautegira al bait lasterren egokitzea, errotze prozeduraren tramitazioa errazteko eta, egoki iritziz gero, aldi baterako baimena lortzeko.

Beren egoera juridikoa normalizatzea da atzerritar askoren kezka nagusia.

Erroldak garrantzi handia eskubideak erabiltzeko orduan, eta horrek erakundearen esku-hartze asko eragin ditu azken urteotan, atzerritarren eskubideak babesteko. Horrela, beharrezkoa iruditu zaigu araudi berria eskubideak bermatzearen ikuspegitik aztertzea, eta, gainera, EAEko udal guztiei gomendio orokor bat egin genien, udalek errolda-inskripzioa nahiz horren iraungitasuna erabakitzeke erabiltzen duten prozeduraz, baita Europako Batasuneko herrialdeetakoak ez diren atzerritarren datuak beste administrazio publiko batzuei uzteko prozeduraz ere.

Prozedura hori gauzatzeko modua aztertu dugunean, erroldari buruzko jardunbideak udal batetik bestera oso desberdinak direla egiaztatu dugu. Hala ere, ontzat jotzen dugu udal horietatik askotan atzerritarrei erroldatzeko aukera ematea.

Erakunde hau kezkatuta egon da erroldatzearen iraungipena alde aurretik entzunaldia eskaini gabe egin daitekeela jakinda. Ia udal guztiek, erroldan baja eman baino lehen, iraungipenaren berri emateko sistema bat ezarri dute, gutxienez. Alabaina, kontuan izanik, iaz jasotako informazioaren arabera, guztira 4.245 pertsonari eman zitzaie la baja erroldatzea iraungi zelako, prozedura honetan ahalik eta berme-neurri gehienak ezarri behar direla adierazi behar dugu berriro.

Jokabide diskriminatzaile asko eremu pribatuan agertzen dira. Eremu horretan; zoritxarrez, zenbait pertsonak jokabide xenofoboak eta baztertzailak dituzte atzerritarrekin.

Jokabide horietan eragina dute, noski, batzuetan oso errotuta dauden aurreiritzi eta estereotipoek, izan ere, atzerritarrek delituak egitearekin lotzen dituzte.

Hedabideek atzerritarrei buruzko berriak behar bezala tratatzea lagungarria izan daiteke atzerritarren ikuspegi gutxiesgarria ez izateko.

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu polizi kidegoek inmigrazioaz ematen duten informazioaren trataerari buruz 2004ko txostenean argitaratu genuen gomendio orokorra bete dadin, oraindik puri-purian baitago.

Administrazioek kontu handia izan beharko lukete informazioa tratatzean eta sentsibilizazio kanpainak sustatu behar dituzte, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen bizikidetasun-eredua lortzen laguntzeko.



Horixe bera adierazi du Eusko Legebiltzarrak berak, legez besteko proposamena onartu baitu inmigrazioaren eta gizarteratzearen eremuan hizkera erabiltzeari buruz. Zoritxarrez, legez besteko proposamena hori eta aipatu gomendioa egin diren arren, berrietan oraindik ere herritartasuna, etnia, azalaren kolorea edo erlijioa aipatzen da.

* * * * *

5. **Ijito etniako pertsonak** oso laidoztatuak izan dira historian zehar, eta gizarte zerbitzu, baliabide eta aukeretarako sarbidea mugatuagoa izan dute.

Tokiko administrazioek eta/edo herriko auzotarrek eta ijitoek elkar ulertzeko dituzten arazoekin dute zerikusia jaso ditugun kexetatik askok. Pertsona horien arazo nagusietako bat etxebizitzarena da, zailtasunak baitituzte auzotarrek onar ditzaten.

Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plana jaso genuen, Euskal Herrian gizarteratze politika aktibo baten baitan egindako lehen urrats gisa. Han ezarritako neurriak betetzeko, ezinbestekoa da hori bermatuko duten baliabideak ematea. Bereizkeriaren aurkako borroka funtsezkoa da gizarte desberdintasunak gainditzeko eta gizarte bazterkeriako prozesuei aurrea hartzeko. Horrenbestez, administrazioek ahalegin handiagoak egin behar dituzte diskriminaziozko jarduerak ekiditeko.

Administrazioek gauzatutako jarduera gehienak, gizarte bazterkeriaren aurkako ikuspegitik egin dira. Hala ere, horretaz gain, tratu berdintasunarekin, kultura identitatea onartzearekin edo esparru komunetan parte-hartzearekin lotutako ekimen publikoak abiarazi behar dira.

6. Bestalde, **pertsona ezgaituek** ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte gainerako biztanleekin benetako berdintasuna lortzeko orduan, bai lan merkatura sartzeko, bai eguneroko bizitzan, kasu askotan garraio biderik erabiltzerik ez dutelako, edo hirigintza- eta arkitektura-oztopo ugari daudelako.

Garraioaren arloan, tamalez oraindik ere adierazi behar dugu gure garraio publikoek ez dituztela kendu ezgaitasunen bat duten pertsonen beren kabuz moldatu ahal izateko oztopoak.

Egia da **hiri garraioan** duela urte asko hasi zirela neurriak hartzen eta, hala, pixkanaka, behe plataforma duten autobus egokituak jarri direla linea guztietan; horrela, flota horietan egokitze maila handiak lortu ahal izan dira. Hala ere, oraindik ez da lortu horiek erabat egokitzea.



Hiriko autobus egokituen eskaintza ezgaituek mugitzeko dituzten beharrei erantzuteko nahikoa ez denean, taxia da zerbitzu publikoan erabil dezaketen garraio bide bakarra. Hala ere, zerbitzu horren bidez ere ezin zaie behar bezala erantzun mugikortasun arazo larriak dituzten pertsonen desplazamendu beharrei, gure hirietako taxi egokituen eskaintza ez baita nahikoa.

Arazo nagusia hiri arteko garraioan dago, bereziki, errepidez egiten denean.

Inbertsio handiak egin diren arren, trenezko garraioa ere ez dago eskuragarri eta ezgaitasunen bat duten pertsonen oraindik ere arazo larriak dituzte trena erabiltzeko. Tren geltokietan (EuskoTren) hainbat oztopo dagoela ere ikus daiteke.

Hirigintzaren arloan, hainbestetan aipatu den Lurzoruaren Legeari esker, udalek, ordenantza onartu ondoren, elementu pribatiboen jabetza ken dezakete jabetza horizontalaren barruan, igogailuak jarri ahal izateko.

Dagoeneko adierazi dugu hiri-altzariak ezgaitasunen bat duten pertsonentzako irisgarri egiteko araudia bete behar dela. Horrela, autonomia erkidegoko hiru hiriburuei eskatuko diegu birziklatzeko eta zaborra biltzeko edukiontzia ezgaituentzat irisgarriak izan daitezela.

* * * * *

Ikastetxe askotan irisgarritasun arazoak konpondu behar dira; horiek ez diete soilik hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eragiten, baizik eta baita mugitzeko urritasunak dituzten irakasleei ere. Hezkuntza Saila arazo horiek konpontzeko inbertsioak egiten ari den arren, ezinbestekoa da beharrezko lanak modu planifikatuan egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoan dauden lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeen irisgarritasun egoerari buruzko maparen bidez. Mapa hori oraindik prestatzen ari dira.

Bestalde, aipatu beharrekoa da abenduaren 14ko 39/2006 Legea, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta horiei eskaintzen zaien arreta sustatzekoa. Beste zenbait konturen artean, honako hauek aipatzen ditu: mendekotasun egoeran dauden pertsona guztiek izan behar dutela laguntza hori eskuratzeko aukera; mendekotasun egoeran dagoen norbait etxean geratu ahal izateko laguntza ematen zaien familien eginkizuna; eta administrazioek elkarrekin lan egin behar dutela, mendekotasun egoeran dauden pertsonen beren beharretara hobekien egokitzen diren gizarte eta osasun prestazioak eskuratu ahal izan ditzaten.

Zergen arloan, ezgaitasunen bat duten pertsonen berriz ere adierazi dute udalek oztopoak jartzen dituztela trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen salbuespena aplikatzeko.



Etxebizitzaren arloan, oso ontzat jotzen dugu 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Plan berriak adimen urritasuna duten pertsonentzat edo burutik gaixo daudenentzat berariazko kupo edo erreserba sortzea alokairu erregimenean esleitzen diren sustapenetan; izan ere, adierazi dugun moduan, neurri hori denbora luzean eskatu du erakunde honek.

Irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legean xedatzen diren tresna desberdinak aplikatzeari dagokionez, berriz ere adierazi behar da administrazio publikoek eta, bereziki, euskal udalek, ez dituztela tresna horiek behar bezainbeste erabili, eta, batzuetan, argi eta garbi urratzen dituztela arauetako aginduak. Sustapen politikak eta kontrol jarduerak ez dira nahikoak eta ez da zigortzeko jarduerarik gauzatzen.

Beste alde batetik, ezgaitasunen bat duten pertsonak oraindik ere zailtasunak dituzte erreserbatutako aparkaleku plazak erabiltzeko, erreserba-eskubiderik ez dutenek elkartasunik erakutsi gabe hartzen baitituzte.

Azkenik, adierazi nahi dugu oraindik bide luzea dagoela ezgaitasunen bat duten pertsonak erabat **laneratzea** lortzeko eta, beraz, herri-administrazioek pertsona horiek lan merkatuan sartzeko estrategiak diseinatu behar dituztela.

7. Legerian aurrerapauso handiak diren arren, **joera homosexualeko pertsonak, gay eta lesbianek, baita identitate transexual edo transgenerokoek** ere oraindik bereizkeria, irainak eta gizarte bazterkeria jasaten dituzte, homofobiazko eta heterosexismo eskusibo eta baztertzailtzeko jokabideak direla medio. Adierazi behar dugu gaur egun ere gizon-emakume homosexual asko ez dela ausartzen bere maitasuna askatasun eta duintasun osoz bizitzen. Beraz, lanean jarraitu behar dugu, oraintsu pertsona horientzat lortu den berdintasun formalarekin batera, al bait lasterren, benetako berdintasun soziala lor dadin, oraindik berdintasun hori eragozten duten elementu boteretsuak baitaude.

Orain dela gutxi Gorte Nagusiek genero identitateari buruzko legea deritzana onartu dute (martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzea arautzen duena). Lege horrek bidezko erantzuna eman die hainbat egoera pertsonal lazgarri eta izugarriari, eta, edonola, baita ere transexualek duintasunerako eta beren nortasuna aske garatzeko duten eskubidearen errebindikazioari. Hori oso ontzat jo beharra dago giza eskubideak babesteko sortua den erakunde baten ikuspuntutik.

Neurri hori, ordea, osatu egin behar dela uste dugu, ezjakintasunak eta aurreiritziak estalita egon den giza-errealitate horri erabateko erantzuna eman dakion. Horretarako, osunbaliabide publikoek bereganatu egin behar dute sexua berriz esleitzeko prozesua, hori



ezinbestekoa baita transexual askorentzat bizimodu duin eta osasun arazorik gabea egin ahal izateko. Izan ere, arazo horiek ezin dira konpondu generoko disforia edo animo-gorabeherak kendu gabe.

8. **Terrorismoaren eta jazarpeneko indarkeriaren biktimak** ere aipatu nahi ditut.

Ararteko erakundeak sentiberatasuna agertu izan du beti terrorismoaren biktimenganako, eta, horregatik, erakunde honentzat lehentasunezko arreta merezi duen taldeetako bat da. Ahalegindu gara betidanik, eta horretan dihardugu, biktimei momenturo elkertasuna eta gertutasuna adierazten, eta, aldi berean, nabarmenarazten beharrezkoa dela bai botere publikoek bai gizarteak ere konpromiso tinkoagoa har dezaten pertsona horiek bizitu duten eta oraindik bizi duten egoera agerikoa egite aldera, batetik, eta, bestetik, behar duten arreta eskaintzeko, jasan duten kaltea konponduz eta erasotua eta zikindua izan den duintasuna berrezarrit.

Une hauetan, dakizuenez, txosten berezi bat egiten ari gara terrorismoaren biktimen egoeraz eta lehenbailehen aurkeztu nahi nioke Legebiltzar honi.

Nolanahi ere, oraindik hala egin ez duten botere publiko guztiei eskatu nahi diet bete dezatela Legebiltzar honen osoko bilkurak 2003ko ekainaren 25ean onetsi zuen terrorismoaren biktimen egoerari buruzko legez besteko proposamena, baita ere osoko bilkurak 2005eko otsailaren 17 eta 18an onartutako irizpena ere.

9. **Gaixo kronikoen taldeak**, hasiera batean, tratamendu edo zainketa sendagarritzat ezagutzen ditugunak ez diren beste batzuk eskatzen ditu.

Puntu horretatik abiatuz, behar zehatzak dituzten pertsonak topatuko ditugu. Horrela, bizi itxaropenak gorantz egiteak gaixotasun kroniko gehiago ekartzen ditu. Horren ondorioz, batez ere tratamendu aringarrietan oinarritutako eskariaren beharra izango dugu, berez tratamendu sendagarriak izango liratekeen beharra baino gehiago.

Burutik gaixo dauden pertsonen kasuan ere, adinekoekin batera protagonismo handia baitute gaixotasun kronikoetan, helburu nagusia ez da haiek sendatzea, baizik eta zaintzea, autonomia sustatzea, hondatzea ekiditea... Euskal Autonomia Erkidegoan buruko gaixotasunari ospitaletatik kanpo ematen zaion tratamenduari buruzko txosten berezian ere jaso zen behar hori.

Osasunaren alorrari dagokionez, zainketa aringarriak sustatzeko beharra azpimarratu da. Zainketa horiek pixkanakako gaixotasun itzulezinak dituzten gaixoentzat dira, haiek tratamendu sendagarriei erantzuten ez dietenean. Behar horren erakusgarri, Zainketa Aringarrietako Plana onartu da, Eusko Legebiltzarren legez besteko proposamen batean jorratua.

Bestalde, gaixotasun horiek kronikoak izateak hainbat behar dakartza berekin eta behar eta horiek kontuan hartu dira Arreta Soziosanitariorako Plan Estrategikoan, arreta hori beharko duten pertsonen taldea zehazterakoan.



Pertsona horiek gero eta maizago babesten dituzte beren eskubideak elkartean bitartez. 2006. urtean, epidermiolisi bullosoa, bizkarrezur bifidoa eta hidrozeftalia, fibromialgia edo neke kronikoa bezalako gaixotasunak dituzten pertsonen egoera azaldu diote Arartekoari. Kasu batzuetan, dituzten gastu ikaragarriak finantzatzeko arazoak berri eman dute eta beste batzuetan, berriz, gaixotasunaren tratamenduari edo profesionalen prestakuntza-planei buruzko kontuak aipatzen dira.

HIES duten edo GIB eramaile diren pertsonen, nagusiki, kirurgia estetikoko prestazioak eta ugalkortasun tratamenduari buruzko prestazio teknikoak lortzeko aukera eskatu zuten. Hezkuntza Sailaren erantzun onari esker, 2006an ez dugu kontu horien inguruko kezarik jaso.

10. Orobat, erakunde honi **askatasunik gabeko pertsonen eta atxilotuen eskubideak** bermatzea ardura zaio.

Berriz ere adierazi behar dugu askatasuna kentzea ez den beste zigor batzuen alde gaudela, eta botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela askatasuna mugatzen ez duten zigorrak, errealitatean, egiaz eta modu eraginkorrean ezar daitezten.

Askatasunik gabeko zigorrak presoak gizarteratzera bideratu behar dira –horixe dio Espainiako Konstituzioak 25.2 artikuluan, funtsezko eskubideen artean–. Agerikoa da betebeharrak hori botere publiko guztiei dagokiela. Beraz, euskal administrazioek esku hartu behar dute gure autonomia erkidegoko espetxeetan zigorra betetzen ari direnen edo bete dutenen arazoak eta gabeziak arintzeko, eta pertsona horiek ahultasun eta gizarteratze-arazo handiko taldetzat hartu behar ditu.

Erakunde honek berriz ere adierazi nahi du askatasuna mugatzen ez duten zigorrak sustatu behar direla, zigor horiek abiarazteko behar diren neurriak hartuz –aurrekontu arlokoak batez ere–

Askatasuna behar-beharrezkoa denean bakarrik kentzea, horrexek izan behar du helburu nagusia.

2006. ekitaldian erakundeak beka emandako emakume baten lana argitaratu dugu, izenburu honekin: *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad*. Bertan islatzen dira aipatzen ari garen gaietako batzuk.

* * * * *

Atxilotuen eskubideei dagokienez, lanean jarraitu behar da tratatu txarrak edo torturak eragozteko mekanismoak hobetzen eta osatzen. Horren haritik, berriz adierazi behar dugu 2004ko azaroan ezagutarazi genuen adierazpenean esan genuena: gizaki guztien duintasuna



eta osotasun fisiko eta morala bermatu behar direla, eta zigorgabetasuna babes lezaketan denborak eta espazio ilunak desagerrarazteko neurriak proposatu behar direla. Euskadin diharduten polizia –udaltzaingoak barne- guztien agintari eskudunek helburu horiek betetzeko konpromisoa indar dezaten nahi dut.

Bestalde, tortura ekiditeko neurrien artean, gogoratu behar dugu 1999an Ararteko erakundeak gomendio bat egin ziola, prebenitzeko asmoz, Herrizaingo Sailari: hain zuzen, kontrol sistema bat ezar zezala, ziegen eremuko korridoretan jarritako kameren bidez egindako grabaketetan oinarrituta, atxilotutako pertsonen eskubideak bermatzeko neurri gisa. Aurreko txostenetan azpimarratu genuenez, oro har sistema jarrita eta funtzionamenduan zegoen arren, zenbait polizia-etxetan –hain justu, inkomunikatutako atxiloketak egin zirenetan– bi ziega-eremu ezberdin zeuden elkarrengandik banandurik, baina grabazio sistema bietako batean bakarrik zegoen erabiltzeko moduan.

2006an Herrizaingo Sailak adierazi digu bideo grabaketen sistema ezarri duela Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Dibisioaren menpeko atxiloketa zentroetan, baita deklarazioak hartzen diren lekuetan ere. Era berean, kamerek atxilotuak ziegen eremuan ibiltzen diren leku guztiak kontrolatzen dituztela jakinarazi digu, komunak eta ziega barruak izan ezik. Adierazi digunaren arabera, sistema horrek eguneko 24 orduetan funtzionatzen du, kamerek hartzen duten eremuan mugimenduren bat hautematean automatikoki grabatzen du, eta ez du kamerak deskonektatzeko aukerarik ematen, ez eta grabaketak eteteko ere.

Erakunde honek oso onuragarritzat jotzen du Ertzaintzak egiten dituen atxiloketa guztiak grabatzea eta sistema hori deklarazioa hartzen den bakoitzean erabiltzea. Aukera izan dugu, gainera, zenbait komisariatara egindako bisitaldietan, neurri horiek nola erabiltzen diren ikusteko. Behin eta berriz adierazi dugun bezala, gure ustez, bi neurri horiek aurrerapauso handia dakarte atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzioan, eta tresna egokiak dira eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko.

Hala ere, gomendioaren zenbait alderdi oraindik ez dira bete edo partzialki bete dira. Zehazki, ez dira sistematikoki berrikusten atxiloketa guztiei dagozkien grabaketak eta ez dago erregistrorik grabaketak ikustean antzeman daitezkeen gorabeherak idatziz jasotzeko.

Bestalde, gure ustez, Herrizaingo Sailak epe orokor bat ezarri beharko luke, grabatutako materiala grabatutako jardueren ondorioz sor daitezkeen erantzukizun administratibo eta penalak preskribatzeko gehienezko epean gordeko dela bermatzeko. Orobat, kontuan hartu beharko luke giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (besteak beste, Ararteko erakundeak) esku hartzeko duten epea.



11. Axkenik **gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonen** hitz egin nahi nuke.

Atal honetan, bereziki aipatu nahi dut bizitokirik gabe eta larriki baztertuta bizi diren pertsonen oinarrizko beharrei emandako erantzunari buruzko txosten berezia.

“Larriki baztertuta dauden pertsonak” kontzeptuaren bidez, baztertuen taldean bertan baztertuta daudenak aipatzen ditugu; horiek arreta sozialeko sare normalizatuetatik, bai eta lagun eta famili sareetatik kanpo daude.

Azken urteotan aldaketa nabarmena izan da pertsona horien profilean. Prototipoa edo eredua dagoeneko ez da gizon bakartia, adin ertainekoa, nahasmendu psikologikoren bat duena. Gaur egun, orainsu arte ezagutu dugun profil estandarrean erabat sartzen ez diren ezaugarriak dituzte gaueko harrera-zentroetara, jantokietara edo eguneko zentroetara joaten diren pertsonak. Hori guztia iaz bukatu genuen txosten monografikoan aztertu genuen, eta bere edukia Giza Eskubideetarako Batzordean azaltzeko aukera izan genuen.

Patologia duala duten pertsonen egoera nabarmendu beharra dago, askotan miseria gorrian bizi baitira.

Baztertutako pertsonen laguntzeko zentroak oso gizarte-lan garrantzitsua egiten ari direla nabarmendu nahi dut, eta zentro horiek sustatu egin behar direla. Zentro horien artean, eskakizun gutxikoak deritzenek lan arras garrantzitsua egiten dute larriki baztertuta dauden talde horiekin, izan ere, pertsona horien bizimodua duin bihurtzen dute eta, batzuetan, gizarteratzeko prozesuak hasten dituzte.

* * * * *

Bukatzerara noa. Eskuetan duzuen txostenak, begi-bistakoa denez, anitz irakurketa ezberdin egiteko aukera ematen du, txostenari modu ezberdinetan hel dakioke, beste gai batzuk nabarmenduz. Alabaina, azalpen honen iraupena mugatua denez gero, ezin ditut horiek bezain garrantzitsuak diren beste gai batzuk aipatu, baina txostenean eskuragarri ditu horien berri nahi duenak.

Benetan eskertzen dut nire ondokoak eta Ararteko erakundeko langileek egiten duten lan aparta. Lan horren emaitza islatzen da, hain justu, azaldu berri dizuedan urteko txostenean.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak bete ahal izateko.



Eskerrik asko.